



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

Alegiako Herri Eskola HLHI

Ikastetxearen kodea:

012004

Data:

2023/02/03





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Alegia Gipuzkoako erdi-ekialdeko udalerrria da; Tolosaldea eskualdekoa. Egun (2023) 1740 biztanle inguru ditu . Gure eskola, herriko Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola bakarra da. Eskola publikoa, inklusiboa eta euskalduna da gurea; hainbat kultura bere baitan hartzen dituena. Atzerrian jaiotako biztanleriaren portzentaia %12,72a da (marrokiarrak, sahararrak, argentinarrak...)

2022/2023 ikasturtean, 177 ikasle izan ditu gure eskolak: HHn lau ikastalde eta LHn zazpi izanik. Azken urteotako bi lerroetako joera uzten goaz eta lerro bakar baterako joera hartzen ari gara. Era berean, gure eskolara Alegiako umeez gain, inguruko herrietakoak ere etortzen dira: Orendaindik nagusiki.

Alegiako herria, euskararen arnaguneen mapan kokatzen zen duela gutxi arte; azken hamar urtetako datuen arabera, berriz, egoera soziolinguistikoak aldaketa nabarmena izan du, eta egun errealitatea bestelakoa da.

Eskola eremua, bi eraikin eta jolastoki handi batez eratzen da: eraikin txikienean HHko ikasleak daude eta eraikin handienean LHko ikasleak. Azken hori, DBHko Aralar Institutuarekin batera partekatzen dugu. Eskolako azpiegituraz gain, ikastetxetik 40 metrotara dauden kiroldegiko, futbol zelaiko eta Kultur Etxeko instalazioak ere erabiltzen ditu, eta pixka bat urrunago, Franconi Fundazioak utzitako 300m²-ko eremu bat erabiltzen da baratzeko proiektua aurrera eramateko.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Gure eskolan hezkuntzak ahalbideratutako azpiegiturak nagusitzen dira. Horien artean eskolan teknologia berriekin lan egiteko aurrerapausorik nagusia konektibitatea izan da; ikasgela batean ikasle bakoitzak bere gailuarekin lan egiteko garaian, garrantzitsua izan da wifi konexioak ongi funtzionatzea. Era berean, gela bakoitzean mahaigaineko ordenagailua, arbel digitala, ikasleentzat mini eramangarriak eta irakasleentzat eramangarriak egotea ahalbideratzen du.

Gailu horien berriztapenez Hezkuntzako Departamentua arduratzen da; era berean, CAU Mantentzen Zerbitzua gailu horien konponketak kudeatzeaz arduratzen da eta eskolako gailuen mantentze-lanak ere errazten ditu.

Horietaz gain, eskolak ere baditu unean uneko beharren arabera erositako web-kamerak, kaskoak, saguak... konfinamendu ondorengo hilabeteetan, eskolaren egoera mixtoa zela eta, behar berriak sortu baitziren.

Giza baliabideei dagokionean, gehiago egotea eskertuko genuke; finean, hezkuntza eta eskolaren arteko tratu horretan pertsona batek hartu behar du inbentarioa egunean eramateko ardura, teknikariei konponketetan eta muntaketetan laguntzeko ardura, edota hainbat erabaki hartzeko ardura. Hortaz, lan hori aurrera eramango duen figura RPTan sartzea beharrezkoa ikusten dugu.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Argi daukagu XXI. mendean teknologia digitalak duen garrantzia eta horrek hezkuntza prozesuari egin diezaiokeen ekarpenaz; horregatik teknologia berriak eskolan nola erabiliko diren hausnartzea eta erabakitzea beharrezkoa ikusten dugu, guztion eguneroko ohituretan behar bezala txertatzeko.

Curriculumak eskatzen dituen irteera profilaren baitako kompetentziei, IDU printzipioetan oinarritako lan ohiturei eta egun gero eta gehiago indarrean dauden metodologia aktiboek begiratzen badiegu, ezinbestekoa da gelako lanean ikasle eta irakasleen kompetentzia digitala garatzea.

Kompetentzia digitalaren garapena progresiboa, adinari egokitutakoa eta esanguratsua izan dadin, proiektu honetan diseinatutako helburuak eta ekintzak hartuko dira kontutan. Guzti horiek, lau urtetan lortzea espero da; lehentasunak finkatuz eta urtez urte hobekuntza bultzatuko duten balorazioa eginez.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Proiektu hau diseinatzeko garaian, kontutan izan dugu ikastetxeak azken urteetan eman duen garapen digitala; gero eta gehiago txertatzen dugu gailu digitalen erabilera ikaskuntza egoeretan eta horrek, gero eta prestakuntza handiagoa suposatzen digu ikasle eta irakasleoi.

Lehen esan bezala, proiektu hau lau ikasturtetan garatuko da; hain zuzen ere eskolako zuzendaritza talde berriaren denboraldiak iraungo duena. Lau ikasturte horietan gauzatu beharreko helburuak orokorrak izango dira eta horiek barne hartzen dituzten ekintzek, berriz, presentzia desberdina izango dute: batzuk lehen urtean gauzatuko dira, beste batzuk urtero, besteak azken bi urteetan... helburua guztia progresiboki eta lehentasunen arabera antolatzea izango da.

Proiektu hau, nola ez, eskolako kide guztien artean eta OOGaren onarpenarekin gauzatuko da. Zuzendaritza taldeak babeste du eta proiektua dinamizatuko duen talde eragilea IKT batzordea izango da; BeA, Zuzendaritza eta irakasle arduradunen artean osatuko dena.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Gure ikasleen irteera profilean gero eta gehiago nagusitzen da Konpetentzia Digitalaren garrantzia eta horrek, zuzenean eragiten du Eskolako Hezkuntza Proiektuan. Konpetentzia digitalak erabiltzeak (ikaskuntzarako, lanerako eta gizartean parte hartzeko) teknologia digitalen erabilera kritikoa, segurua, osasungarria, iraunkorra, sortzailea eta arduratsua egitea eskatzen du; baita teknologia horien bidez pertsonekin edo gailuekin elkarreragitea ere.

Hori dela eta, Europa mailan sortu diren markoak kontutan hartu behar ditugu: DigCompOrg (eskolarako), DigCompEdu (irakasleontzako) eta DigComp (ikasleentzako). Horiek eskolako errutinan gero eta gehiago txertatzeko, urteko planean zehaztuko dugu zer non eta noiz egingo dugun ikasturte bakoitzean marko horien harira.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikasleetatik abiatuta, konturatzen gara haien bizitzetan gailuekin harreman handia dutela; gurasoen mugikorra dela, tableta, ordenagailua... Kasu kasu, konturatzen gara erabilerari hori oso eskasa dela eta gabezia handiak dituela: natibo digitalak izateak ez die Konpetentzia Digitalean adituagoak egiten. Segurtasuna, pribatutasuna, netiketak, arau-haustea... badira hainbat gai familietan lantzen ez direnak eta azken horiek ere Konpetentzia Digitalaren barruan kokatzen dira.

Bestaldea, 2021/2022 ikasturtean SELFIE autoebaluazio froga pasa genuen gure eskolan. Emaitza horiek aztertuta, orokorrean, honako ondorioak atera genituen eremu bakoitzeko:

***LIDERGOTZA ETA GOBERNANTZA:** eskolako konpetentzia digitalaren inguruko dokumentazioa argi azaldu behar zaie klustroideei; egon badago ere, askok ez baitute argi non dagoen edota zertan dantzan. Hala ere, irakasteko eredu berriak martxan daudela argi ikusi da eta zuzendaritzak horiek babesten ditu; falta dena da, sistematikoki etapa guztian zehar horiek txertatzea.

***ELKARLANA ETA NETWORKING-A:** elkarlanerako teknologia digitalak erabiltzen direla argi geratu da. Hala ere, ez dugu tarte handirik hartzen ematen diogun erabileraren inguruko hausnarketa egiteko.

***AZPIEGTURAK:** eskolak azpiegitura egokiak ditu, konektibitate arazorik gabekoak eta ikas-irakaskuntzarako gailu digital aproposak. Hala ere, datu babesaren inguruan hausnarkate bat egin beharko genuke eta erabakiak hartu; ikastetxe mailan denek berdin jokatzeko.

***ETENGABEKO GARAPEN PROFESIONALA:** eskolak eskaintzen dituen formakuntzarako hausnarketa eta patehartze guneak eskasak dira. Horiei garrantzia ematen ahalegindu beharko genuke.

***EDUKIAK ETA CURRICULUMA:** irakasle gehienek online baliabideak bilatzen ditu eta edukiak sortzen dituzte haien irakaskuntza metodoan. Hori horrela, curriculum berriarekin lotura ematea izango da hurrengo erronka.

***IKASKUNTZA IRAKASKUNTZA:** baliabide digitalen presentzia dute gelako metodologian; ikasleen beharretara egokitzeko, sormena lantzeko... Hala ere, diziplinarteko proiektuetan indar gehiago jartzea beharrezkoa agertzen da.

***EBALUAZIO JARDUNBIDEAK:** orohar eremu honetan lortu dira emaitza baxuenak, irakasle gutxi erabiltzen dituzte baliabide digitalen auto- edo ko-ebaluaziorako. Era berean, indar gehiago jarri behar da (ikastetxe mailan) atzerakadak eta horien baliabide digitalen bidez ematean.

Emaitza hauek aztertu ondoren, jarraian ikastetxe honen indargune eta ahuleziak baita mehatxuak eta aukerak ere aztertuko ditugu.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Egun dauden prozedura digitalak ez dira espero bezala iristen etapa guztietako geletara.

Oraindik baliabide digitalak ez dute erabateko presentzia gelako metodologian.

Baliabide digitalak ez dira kontutan hartzen ebaluazio tresna gisa.

Eskola orduetan, baliabide digitalen egokitasunaren eta datu babesaren inguruan hausnarketa eta barne-formakuntza ez da ahalbidetzen.

Proiektu interdiziplinarrek presentzia gutxi dute gure eskolan.

Eskolako komunikazio kanalen erabileraren desoreka: irakasle batzuk asko eta beste batzuk gutxi.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Familiek ez dituzte eskolako komunikazio kanalak espero bezala erabiltzen.

Berritasun digitaletako irakasleak duen beldurra.

Irakasle bakoitzak eskolatik kanpo jasotzen duen prestakuntza profesionalaren ziurgabetasuna; ondoren eskolako berritasunei aurre egiteko tresnak izateko.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Ikasle eta irakasleen oinarrizko kompetentzia digitalerako plangintza sortuta dago.

Klaustro egonkorra; egiten den lanketak eskolan jarraipena izateko.

Elkarlanerako komunikazio kanalak ongi kudeatzen dira. Irakasleen artean lan egiteko edota komunikatzeko.

Kanpo komunikaziorako kanalak ongi egituratuta daude.

Ikasleek, talde lanean nahiz bakarka, baliabide digitalak era egokian erabiltzen dituzte.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Eskolako azpiegitura eta ekipamendu digitala ona da; konektibitate ona eta gailuen mantenuaren jarraipen zuzena.

Irakasle batzuen inplikazio positiboa teknologia berriekiko.

Eskolako komunikazio kanalek ongi funtzionatzen dute familiekiko harremanetan.

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Eskolak dagoeneko hartuta dituen erabakiak plan estrategiko batera bihurtzen joango gara; lan hori irakasleen artean adostuz eta modu kontziente batean maila guztietara zabalduz egingo dugu. Klaustroaren egonkortasuna baliatuz, erabaki horiek eta hainbat irakasleen jarrera positiboarekin kutxatu eta benetan gauzatuko dugun plan estrategiko bat garatzea aurreikusten dugu.

Eskolako indargune bat den web orria edota email bidezko komunikazioa, familiei are eta gehiago zabaltzea eta helarazteko ikasturte hasierako bileretan eta urtean zehar hainbat ekintzen bidez oihartzuna emango diegu bide horiei.

Era berean, egun ditugun baliabide digitalak baliatuz eta ikasleen Konpetentzia Digitala areagotzeko asmoz, horiek ikas-egoeretan txertatuko ditugu.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Eskolan dauzkagun tresna digitalen artean, ziklo bakoitzerako egokienak hautatu eta irakasle on artean horien ezagutza zabalduko dugu; horretarako eskolako eskusibak saioak baliatuko ditugu eta barne-formazioez gain kanpo-formazioak eskatuz behar den kasuetan. Era berean, ikaskuntza prozesurako eguneroko praktikan txertatuko dira tresna horiek (maila bakoitzaren arabera) ikasle on lanak garatzeko eta ebaluatzeko baliatuz.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Irakasle on Etengabeko Garapen Profesionala (EGP) handitzeko asmoz, teknologia berrien alde positiboa eta pedagogikoa bultzatuko dugu, eskolako plan estrategikoa osatzen joateko. Era berean, garapen hori IKT batzordearen eskutik joango da, behar den barne-formazioak eskainiz eta berritasun digitalekiko aurreiritziak ikuspegi positibo eta pedagogiko batetara gidatuz.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Irakasle on EGP idartzeko eta eskolako helburu digitalei erantzuteko, eskola ordutan antolatuko dira aipatutako barne- edota kanpo- formazioak. Era berean, familiak sentibilizatu eta haien seme-alabei laguntzeko oinarrizko ezagutzak eskainiko zaizkie; beti ere, seme-alaben eskolako eskakizunen arabera.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Irakaslegoari plan digitalaren berri ematea, konpetentzia digitala eguneroko lanean nola txertatuko dugun jakinarazteko eta IKT batzordearen partehartzearekin.		
Deskriptorea		Epea
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza		2027/06/30
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1-Zuzendaritza taldeak batzorde digitala antolatuko du, klustrokideen ordutegia eta gaitasunei begiratuta.	Eskolako RPTa eta klustrokideen ordutegia.	Zuzendaritza	Urtero ikasturte +	Detektatua
2-IKT taldearen rola definitu eta koordinaziorako ordutegia zehaztu; esklusibetan edo ordutegi barruan tartea bilatuz.	Klaustroaren ordutegia.	Zuzendaritza	Urtero ikasturte +	Detektatua
3-Harrera gisa, Eskola Komunitateari Plan Digitalaren berri ematea ikasturte hasierako klustro eta guraso bilerak baliatuta. Horrez gain, web orrian ere argitaratuko da.	Proiektu Digitalaren urteko ekintzak.	IKT batzordea Tutoreak	Urtero ikasturte +	Detektatua
4-Ikasturte hasieran azaldutako Proiektu Digitala nola joan den berrikusi, egin diren ekintzak baloratuta.	Proiektu Digitala IKT taldearen aktak Urteko Plana	IKT batzordea Tutoreak	Urtero ikasturte +	Detektatua
5-Proiektu Digitalaren baloraziotik hausnarketa bultzatu ondo egin dena mantentzeko eta falta dena nola hobetu pentsatuz.	Proiektu Digitala Urteko Planaren balorazioa	Zuzendaritza IKT batzordea	Urtero ikasturte +	Detektatua
6-Aurreikusitako ekintzak burutzen direla ziurtatzeko, kronograma bat osatuko da 4 urtetarako ekintzekin.	Proiektu Digitala Kronograma txantiloila	IKT batzordea	2023/09/06	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua		
Plan Estrategikoan zehaztutakoaren arabera, irakasleak dagokien mailaren arabera gaitzea ikasleen Gaitasun Digitala garatzen laguntzeko.		
Deskriptorea	Epea	
II 2.4 Eredu pedagogikoak hedatzen dira	2027/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.4 A3 Eskola mailan urratsak eman dira irakasle/ikasleen gaitasun digila definitzeko eta hobetzeko.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1-Irakasleek koaderno digitalaren erabilera egiten dutela ziurtatzea, asteroko ziklo bileretan eta egiten diren etapako bileretan jasota.	IKT batzordeko aktak Etapako koordinatzailearen aktak	IKT taldea Irakasleak	Urtero ikasturte +	Detektatua
2-Ikasmila bakoitzeko irakasleak izan beharreko profil digitala definitu.	DigComp eta DigComEdu marko teorikoak Eskolako funtzionamendua	IKT taldea Irakasleak	2023/09/20	Detektatua
3-Profil mota bakoitzaren ezagutza maila neurtzeko galdetegiak sortu lortu nahi denaren arabera.	Irakasleen profila Eskolaren beharrak	IKT taldea	2023/09/27	Detektatua
4-Ziklo bakoitzeko irakasleen kompetentzia digitala neurtu sortutako galdetegiak pasata.	Eskolako irakasleen profil mailakaturako galdetegiak	IKT taldea	Urtero ikasturte +	Detektatua
5-Galdetegi horietatik ateratako hutsuneak kompetentzia zehatzetan identifikatu eta barne edo kanpo formazio bidez landu .	Galdetegiaren emaitzak	IKT taldea Irakasleak	Urtero ikasturte +	Detektatua
6-Curriculum berriak ikasleen oinarrizko jakintzetan K.D. inguruan egiten dituen aipamenak identifikatu eta aztertu.	LOMLOE Curriculum berria	IKT taldea	2023/2024 ikast +	Detektatua
7-Europako DigComp markoa eta LOMLOE ren K.D.eko oinarrizko jakintzak bateratu, ikasleen irteera profila kontutan hartuta.	DigComp markoa LOMLOE Curriculum berria	IKT taldea	2023/2024 ikast +	Detektatua
8-Ikasleen Konpetetzia Digitalak eskatzen dituen oinarrizko jakintzak ebaluazio irizpideetan identifikatu eta ziklo bakoitzeko ebaluazio itemetan kokatu.	LOMLOE Curriculum berria	IKT taldea Irakasleak	2024/2025 ikast +	Detektatua
9-Eskolako metodologian IDUa txertatzeko baliabide digitalak identifikatu, adostu eta landu, barne formazio bidez.	G-SUIT, CANVA, TWIKL, WORDWALL...	IKT taldea Irakasleak	Urtero ikasturte +	Detektatua

Helburua		
Plan Estrategikoan zehaztutakoaren arabera, irakasleak dagokien mailaren arabera gaitzea haien Gaitasun Digitala garatzen laguntzeko.		
Deskriptorea	Epea	
II 2.6 Sormena sustatzen da	2027/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.6 A3 3D diseinurako jarduerak txertatu dira.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1-Ikas-egoera bakoitzak duen xedearen arabera teknologia digitalak txertatuko dira, sormena, elkarlana, trebetasun sozial eta emozionalak garatuz; ikas-egoera diseinatzean erabakiko da zein tresna erabili.	Irakasleen artean adostutako baliabide digitalak.	Tutoreak eta arloko irakasleak.	2024/06/20	Detektatua
2-Ikasleen irteera profilararen eta mailaren arabera definitu den ezagutza maila ebaluatzea.	Eskolan adostutako mailako ebaluazio itemak.	Tutoreak eta arloko irakasleak.	2025/2026 eta 2026/2027	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

Eskola mailan EGPren aldeko konpromisoa hartzea, barne edota kanpo formazioak eskaintzeko

Deskriptorea

GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin

Epea

2027/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A2 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasle-taldearentzat, ezagutza ho	Bai/Ez	Bai
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaski	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1-IKT taldeak bere beharrak /gabeziak identifikatzea eskolan eskatzen diren zereginak kontutan hartuta.	Proiektu Digitala	IKT taldea	Urtero lehen hir +	Detektatua
2-IKT taldearen gabeziak hasetzeko formazioa antolatu inguruko erreferenteei galdetuta.	Berritzegunea Aplikatioetako zerbitzuak	Zuzendaritza IKT taldea	Urtero lehen hir +	Detektatua
3-Irakaskuntza digitalaren alderdi pedagogikoa kontutan harturik barne formazioak antolatzea irakasleen beharrak asetzeko.	Irakasleen maila digitala neurtzeko galdetegiaren emaitzak	IKT taldea	Urtero beharrer +	Detektatua


EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Teknologia berriak ebaluazio prozesuan integratzea, ikasleen ikaskuntza prozesuaren ikuspegi osoa lortzeko.		
Deskriptorea	Epea	
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	2027/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A4 teknologia digitala eta konpetentzia digitala ikaskuntza prozesuen ebaluazioan txertatu da.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1-Ikasleen Konpetentzia Digitala ebaluatu, maila bakoitzean adostutako ebaluazio irizpideak kontutan hartuta.	Ebaluazio irizpideak Ebaluazio itemak	Arloko irakasleak.	2025/2026 eta 2027 ikasturteak +	Detektatua
2-3.zikloko ikasleekin IKKI egituren talde-plana egitea tresna digitalen bidez (auto-ko-ebaluazioa).	Google inprimakiak, talde plana, kontrol zerrendak....	Tutoreak eta arloko irakasleak.	Urtero ikasturteak +	Hasita (%1-19)
3-2.eta 3.zikloko ikasleei atzeraelikadura digitala emateko baliabideak sortu (errubrikak e.a.), audio bideo edota iruzkin bidez.	Baliabide digitalak (Drive, Classroom, Audacity, Clipchamp, Canva...).	Tutoreak eta arloko irakasleak.	2025/2026 eta 2027 ikasturteak +	Detektatua
4-Irakasleen lana ebaluatzeko irizpideak sortu, programazioak kontutan hartuta.	Urteko Programazioak	Irakasleak	2026/2027 ikasturteak +	Detektatua
5-Ikasleek irakasleen lana tresna digitalen bidez ebaluatzea, balorazio eskalak erabiliz.	Irakasleen lana ebaluatzeko irizpideak Galdera-sorta	Ikasleak	2026/2027 ikasturteak +	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua		
Curriculuma garatzen dugun heinean sortzen ditugun edukiak lizentziatzea eta biltzea, eskolako baliabidetegia sortzeko.		
Deskriptorea	Epea	
EC 1.1 Irakasleek eta ikasleek sortzen dute edukia	2027/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.1 A1 Curriculum-arloen/ikasgaien % ... ean, gutxienez, ikasleek eduki eta baliabide digitalak sortze	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1-Sortzen ditugun lanetan (irakasle/ikasle) jabetza intelektuala eta baimenak kontutan hartzea lan horien autoretza errekonozituz.	Irakasleen barne-formazioak	IKT taldea eta arloko irakasleak.	2025/2026	Detektatua
2-Eskolako bankua osatzeko prozedura sortu eskolako ezaugarriak kontutan hartuta.	Eskolako biltegitratze sistema	IKT taldea	2024/02/13	Detektatua
3-Eskolako baliabide sarea sortu horretarako egin den prozedura jarraituz.	Eskolako baliabideen biltegitratze protokoloa	Irakasleak Ikasleak	2025/10/15	Detektatua
4-Eskolan sortutako eduki digitalak era egokian biltegitratzen direla ziurtatu, sortu den protokoloa kontutan hartuta.	Eskolako baliabideen biltegia Eskolako baliabideen biltegitratze protokoloa	IKT taldea Irakasleak Ikasleak	2025, 2026, 2027 	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
Eskolako Komunikazio-estraegia berrikusi eta ikasle, irakasle eta familien kolabrazioa bultzatu, egun duguna hobetzeko.		
Deskriptorea	Epea	
EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita	2027/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 2.1 A3 Ikastetxeak Eskola Komunitateko kideekin komunikazioa hobetzeko aldaketak eman eta erak	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1-Eskolako web orrian informazioa eguneratua izan, astero arduradun batek ardura hori hartuta.	Eskolako web orria	Irakasle arduraduna	Urtero	Hasita (%1-19)
2-Ikasketa eta familien artean komunikazio digitala bermatzea, eskolako erakusleioaren bidez.	Mailako/ zikloko erakusleioa (Sites)	Irakasleak Ikasleak	Urtero	Hasita (%1-19)
3-Irakasle-ikasle eta berdinen arteko komunikazio birtuala ematea gai akademikoetarako.	G-SUIT Eskolako posta	Zuzendaritza Irakasleak Ikasleak	Urtero	Hasita (%1-19)
4-Aurrez aurreko guraso bileretan, eskolako web orriaren berri eman eta maila bakoitzean erabiliko diren tresnak azaldu; ikasleen profila kontutan hartuta.	Ikasleen oinarritzko K.D. eta adostutako baliabideak	IKT taldea Tutoreak	Urtero ikasturte	Detektatua +
5-Kanpo komunikazio politikari buruzko hausnarketa egitea.	Zuzendaritza taldea IKT taldea Guraso Elkartea	Zuzendaritza taldea	2023/09/29	Detektatua
6-Barne/kanpo komunikazioa nork eta nola egingo den zehaztu.	Aurreko hausnarketan ateratako ondorioak	Zuzendaritza taldea Web orria berritzeko irakasle arduraduna	2023/10/17	Detektatua
7-Barne/kanpo komunikaziorako protokoloa sortu, adostutako neurriak kontutan hartuta.	Barne/kanpo komunikaziorako zehaztapenak	Zuzendaritza taldea IKT taldea	2023/12/13	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua

Eskolako baliabide digitalen inguruko gidak eta prozedurak sortzea, eskolako azpiegiturei etekin handiagoa ateratzeko.

Deskriptorea	Epea	
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak	2027/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.1 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
1-Ikasturtean zehar eskolan erabiliko diren lizentziak aurretik kudeatu, eskolako gastuetan sartuz.	Eskolako aurrekontua	Zuzendaritza IKT taldea	Urtero ikasturte +	Hasita (%1-19)
2-Eskolako aurrekontuan urtean zehar egon daitezkeen IKT baliabideetarako gastuak kontutan hartzea eskolako idazkariarekin koordinatuz.	Eskolako aurrekontua	Zuzendaritza IKT taldea	Urtero ikasturte +	Detektatua
3-Eskolako gailuen zerrenda eta horien kokapena irakasle taldeari argitu, prestatuta dagoen inbentario zerrenda baten bidez.	Eskolako inbentarioa	IKT taldea	Urtero ikasturte +	Detektatua
4-Gailuen erabilera arduratsua gauzatzeko protokoloa sortu ikasle eta irakasleentzat, eskolako gailuak kontutan hartuz.	Eskolako inbentarioa	IKT taldea	2023/09/29	Detektatua
5-Eskolako gailuen mantenua bermatu, CAU Mantentze Zerbitzua erabiliz.	CAU mantentze zerbitzua	IKT taldea Norbera	Urtero urte osoan +	Egina

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak


Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Irakaslegoari plan digitalaren berri ematea, kompetentzia digitala eguneroko lanean nola txertatuko dugun jakinarazteko eta IKT batzordearen partehartzearekin.	Urtero (ikasturte hasieran edo bukaeran)	Kronogramaren betetze taula IKT bileren aktak	Zuzendaritza IKT batzordea	Detektatua	
II	Plan Estrategikoan zehaztutakoaren arabera, irakasleak dagokien mailaren arabera gaitzea ikasleen Gaitasun Digitala garatzen laguntzeko.	2023: 2 eta 3 ekintzak. 2023/2024: 6 eta 7 ekintzak. 2024/2025: 8.ekintza. Urtero ikasturte hasieran: 4 eta 5 ekintzak. Urtero ikasturtean zehar: 1 eta 9 ekintzak.	Kronogramaren betetze taula IKT bileren aktak Irakasleen hausnarketak eta proposamenak	IKT taldea denetan Irakasleak 1, 2, 5, 8 eta 9 ekintzetan	Detektatua	
II	Plan Estrategikoan zehaztutakoaren arabera, ikasleak dagokien mailaren arabera gaitzea haien Gaitasun Digitala garatzen laguntzeko.	2024: 1 ekintza. Azken bi urtetan 2. ekintza	Kronogramaren betetze taula Ikasleen K.D.ren garapena.	Irakasleek	Detektatua	
GP	Eskola mailan EGPren aldeko konpromisoa hartzea, barne edota kanpo formazioak eskaintzeko	Urtero lehen hirulekoan (1 eta 2 ekintzak) Beharren arabera 3. ekintza.	Kronogramaren betetze taula Urtean zehar egindako ikastaro/formazioen memoria	Zuzendaritza eta IKT taldea	Detektatua	

EJ	Teknologia berriak ebaluazio prozesuan integratzea, ikasleen ikaskuntza prozesuaren ikuspegi osoa lortzeko.	2024/2025: 2.ekintza. 2026/2027: 4. eta 5. ekintzak. 2025-2027: 1.eta 3. ekintzak	Kronogramaren betetze taula Irakasleen hausnarketak eta proposamenak	Irakasleak Ikasleak	Detektatua	
EC	Curriculumak garatzen dugun heinean sortzen ditugun edukiak lizentziatzea eta biltzea, eskolako baliabideak sortzeko.	2024: 2. eta 3. ekintzak 2025/2026: 1.ekintza 2025-2027: 4.ekintza	Kronogramaren betetze taula Emandako adaketen biltegitratze lana	IKT taldea Irakasleak	Detektatua	
EN	Eskolako Komunikazio-estraegia berrikusi eta ikasle, irakasle eta familien kolaborazioa bultzatu, egun duguna hobetzeko.	Urtero	Kronogramaren betetze taula IKT bileren aktak	Zuzendaritza IKT taldea Irakasleak Ikasleak	Detektatua	
AZ	Eskolako baliabide digitalen inguruko gidak eta prozedurak sortzea, eskolako azpiegituri etekin handiagoa ateratzeko.	2023: 4.ekintza Urtero 1, 2, 3 eta 5. ekintza	Kronogramaren betetze taula IKT bileren aktak	IKT taldea Zuzendaritza	Detektatua	
IB						